



**NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA**

Ia denak du prezioa

Filadelfia (AEB), 1838ko uztailearen 11. John Wanamaker jaio zen, geroa marketinaren alorrean eragin handia izango zuen enpresaria. Koinatuarekin batera hasi zen merkataritza eremuan lanean, 22 urte zituela. Biek denda bat ireki zuten orduan; eta negozioa pixkanaka hazten joan zen.

1910ean Wanamaker's saltoki handia zabaldu zuen bere hirian, eta bertan egun oso ohikoak zaizkigun praktikak abiarazi zituen: merkealdiak antolatu zituen urteko sasoi jakinetan, eguberrietan ikuskizunak antolatu zituen bezeroak erakartzeko, saltokiaren barruan jatetxeak jarri zituen, eta erositako produktua probatu ondoren itzultzeko aukera ematen hasi zen. Publizitatean ere aitzindari izan zen eta berea omen da esaldi ezagun hau: "Publizitatean gatatzen dudaren diruaren erdiak ez du ezertarako balio. Arazoa da ez dakidala zein erdi den".

Bere lorpenik handienetakoa salgaien prezioak finkatu eta etiketen bidez adieraztea izan zen. Kristau sutua zen Wanamaker eta fedeak bultzatuta hartu omen zuen erabaki hori: Jaungoikoarentzat gizaki guztiak berdinak omen garenez, guttiz bidegabera iruditzen zitzaion edozein produktu erosteko bezeroak tratuan aritu behar izatea. Horrela, denentzat salneurri berdina ezarrita, ez zen desberdintasunik egongo. Erosteko ahalmenean gorabehera izugarriak zeudela, ordea, ez zuen konfiantza hartu; Jaungoikoaren bideak asmae-



AEB-KO KONGRESUKO LIBURUTEGIA

Lehen Mundu Gerra garaian, John Wanamaker (1838-1922) enpresariak Belgikari prezioa jarri zion: ehun mila milioi dolar.

zinak direla pentsatuko zuen orduan.

Tratua gaur egun baino ohikoagoa zen arren, produktu askok prezio finkoa zuten lehenago ere, eta, ziurrenik, askok prezio horiek etiketan jarriko zituzten bezeroek ikus zitzen. Wanamakerren meritua prezioen etiketak sistematizatzea eta, batez ere, bere burua ondo saltzea izan zen. Marketingean aitzindari, bere buruari publizitate bikaina egin zion: bere salgaiak kalitate handikoak ziren beti, bere langileek beste inork baino lan baldintza hobek zituzten, publizitatean ez zuen sekula gezurrik esaten...

Hain ondo garbitu zuen curriculum distiratsuan, ordea, orban batzuk geratu zitzaizkion, bere jardun politikoan bereziki. Lehen Mundu Gerran, guztiari prezioa jartzeko obsesioak bultzatuta-edo, proposamen bitxia luzatu zien AEBetako kongresukideei. Ordurako Alemaniak Belgika okupatuta zeukan eta Wanamakerrek proposatu zuen AEBek Alemaniari herrialde okupatu osoa erostea. Horrela, gatazka behin betiko bukatuko zela uste zuen. Proposatutako prezioa ehun mila milioi dolarrekoa izan zen, kongresuak eman zion ezezkoa bezain biribila. ●



SCIENTIFIC REPORTS

4.000 urteko ezpain-margoa

Paduako (Italia) unibertsitateko ikerlari talde batek Iranen 2001ean aurkitutako harrizko ontzi txiki bat aztertu du. Zehazki, flasko barruan zeuden arrastoak aztertu dituzte, eta hainbat osagai dituela ikusi dute: hematita xehetua -kolore gorri biziko mineral oxidoa-, manganita, braunita eta kuartzo partikulak. Pigmentu gorria ezpainak margo-

tzeko erabiltzen zutela ondorioztatzea ez da zaila izan "pigmentuak antza harrigarria duelako gaur egungo ezpain margoen errezetarekin", Massimo Vidale arkeologoaren hitzetan. Flaskoa eta pigmentua duela 4.000 urte ingurukoak dira, Kobre Arokoak, eta orain arte aurkitutako ezpain-margo arrastorik zaharrenak dira. ●